



ENKARTERRIKO INDUSTRIALDEAK INDARTUZ

JARDUERA EKONOMIKOKO GUNEA DINAMIZATZEA

Helburua:

Enkarterri eskualdeko industrialdeen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzea.

Azalpena:

Ekimen horren bidez lortu nahi da industrialdeek behar diren azpiegiturak izatea eremu horietako ekoizpen-sarearen funtzionamendu egokia bermatzeko, industrialdeek ingurumen- eta hiri-kalitate ona izan dezaten lortzeko eta haien lehiakortasuna, jasangarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Horretarako, poligonoetan elkartegintza bultzatzeko, kudeaketa-plan integralak idazteko eta poligonoen egoera hobetzeko inbertsioak egiten laguntzeko lan egiten da. 2023rako jarduketa hauek planteatzen dira:

- **Isasi industrialdea. Gordexola.** Azterlan bat egitea, aparkatzeko eremu bat eta hondakin solido inerteak atez ate biltzeko sistema bat sortzeko.
- **Aceña Galdames industrialdea:** Hondakin solido inerteak atez ate biltzeko proiektuaren jarraipena, 2022an hasi zena, eta industrialdean energia komunitate bat sortzeko bideragarritasunaren azterketa egitea.
- **El Páro-Balmaseda industrialdea:** Jabekideei laguntzea funtzionamendu-estatutuak idazten eta kudeaketa- eta jarduera-plana prestatzen.

Parte hartzen
duten
enpresak.
34

BFaren
finantziaioa
15.112,50 €